

## AFRIKA

**ARLOA:** Musika

**MAILA:** Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailak

**DENBORALIZAZIOA:** 7 ordu, 30 minutu

### HELBURU OROKORRAK

- Euskarazko IKT baliabideei esker, ikasleen konpetentzia musikala garatzea.
- Herrialde ezberdinetako kultura ezagutzea.

### HELBURU ZEHATZAK

- Afrikako dantzak, abestiak, berezitasunak eta bitxikeriak ikastea.
- Berdinen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Aurkezpen-gaitasuna garatzea.
- Taldeko lana sustatzea eta jorratzea.

### JARDUEREN SEKUENTZIA

#### A) HASIERAKO FASEA

1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

#### B) GARAPEN-FASEA

2. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen
3. JARDUERA: Senegal
4. JARDUERA: Ghana
5. JARDUERA: Hegoafrika
6. JARDUERA: Benin
7. JARDUERA: Zambia

#### C) AMAIERAKO FASEA

8. JARDUERA

## A) HASIERAKO FASEA

### 1. JARDUERA: Kontinentea ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	Landuko duten kontinentea ezagutzea.

Hasierako fase honetan, landuko duten kontinentea ezagutuko dute ikasleek. Hasteko eta behin, ikasle bakoitzak Afrikari buruz dakiena kontatuko du, izan bertan egon delako, interesatzen zaiolako, nonbaiten entzun duelako, pelikula batean ikusi duelako edo dena delakoagatik. Kontakizun guztiak izango dira baliozkoak.

Ondoren, ikasleak binaka jarriko dira eta galdera batzuei erantzun beharko diete Afrikari buruz, eta, amaitzeko, landuko diren herrialdeak mapan kokatu beharko dituzte. Azken ariketa hau binaka egin daiteke edo, arbel digitala baldin badago, denon artean egin dezakete ariketa.

## B) GARAPEN-FASEA

### 1. JARDUERA: Herrialdeak ezagutzen

<b>Denbormalizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landuko dituzten herrialdeei buruz informazioa eskuratzea.</li> <li>• Egokitutako herrialdeari buruz aurkezpenaegitea.</li> </ul>

Jarduera honetan, talde txikitan jarriko dira ikasleak eta talde bakoitzari herrialde bat esleituko zaio. Ondoren, talde bakoitzak egokitu zaion herrialdeari buruzko informazio hau bilatu beharko du gutxienez:

- Non dago kokatuta?
- Nola du izena bere kostak?
- Zenbat biztanle ditu?

- Zein dira jaki ohikoenak?

Galdera gehiagori erantzuteko askatasuna emango zaie ikasleei. Ondoren, berriro taldekatzeak egingo dira; horrela, talde bakoitzean herrialde bakoitzeko pertsona bat egongo da gainontzekoei herrialdea aurkeztu ahalko diena.

## 2. JARDUERA: Senegal

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	Herrialdeko dantza bat ikastea.

Landuko den lehen herrialdea Senegal izango da, kultura aberatseko herrialdea. Bertan, *Fatou yo* abestia landuko dute. Abesti honek esaten du protagonista zorionsua dela, eta gainerako izaki bizidunak bezala haziko dela bera ere.

Abesti honek dantza eder bat du, eta ikasleek horixe ikasi beharko dute. Hiru zatitan banatzen da dantza. Bideoan erakusten da nola egiten den.

## 3. JARDUERA: Ghana

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Kanonaren aurkezpena, abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanon bat egiten ikastea</li> <li>• Gorputz-perkusioaren bidez abestia laguntzea</li> </ul>

Ghana bertako fauna eta florarengatik ezaguna den herrialdea da. *Tue Tue* abestia ezaguna da herrialde eder honetan. Moldaketa asko ditu abestiak, baina kasu honetan kanon bidez egingo dute, gorputz-perkusioak lagunduta. Kanona bi taldetan egitea proposatzen da, baina hiru taldetan ere egin daiteke.

## 4. JARDUERA: Hegoafrika

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
------------------------	----------

<b>Materiala</b>	Instrumentuak (klabeak, triangelua, panderoa, marakak...) eta abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euri-makila egitea.</li> <li>• Herrialdeko dantza bat ikastea.</li> </ul>

Hegoafrikara joango dira oraingoan, Afrikako beheko puntaraino. Bertakoa da Master KG abeslaria. Beharbada, horrela esanda ez zaie ezaguna egingo, baina *Jerusalema* abestiaren egilea dela esaten badiezu? Horrela, bai?

Herrialde honetako lanketa egiteko haien eskuak, gorputza edo instrumentuak erabili beharko dituzte eta elkarrekin banda polit bat osatu beharko dute.

### 5. JARDUERA: Benin

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Abestean arnasaren kontrola garatzea.</li> <li>• Beningo abesti bat ikastea.</li> </ul>

Beninen izen ofiziala Beningo Errepublika (frantsesez: République du Bnin) da. Mendebaldean Togo du, Nigeria ekialdean, Burkina Faso eta Niger iparraldean eta Ozeano Atlantikoa hegoaldean. Lotarako abesti baten erritmoa ezagutuko dute herrialde honetan. Abesti gozoa da, eta horrela abesten ikasi beharko dute ikasleek.

### 6. JARDUERA: Zambia

<b>Denboralizazioa</b>	Ordu bat
<b>Materiala</b>	Abestia ikasteko bideoa
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zambiar abesti bat ikastea.</li> <li>• Abestiaren dantza ikastea.</li> </ul>

Afrikako ekialdeko kostaldetik barrura sartuta, Zambia aurkituko dugu. Bertako *Bonse Aba* abestuko dute Zambiako 72 hizkuntzerako batean, Bemba izeneko hizkuntzan alegia, eta batera dantzatu egingo dute.

## C) AMAIERAKO FASEA

### 7. JARDUERA

<b>Denboralizazioa</b>	45 minutu
<b>Materiala</b>	Arbela, idazteko materiala (boligrafoa, papera, ordenagailua...), informazioa bilatzeko materiala (liburuak, entziklopedia, Internetarako sarbidea duen ordenagailua...)
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ahozotasuna garatzea.</li><li>• Herrialde ezberdinak ezagutzea.</li></ul>

Azken ariketa honen bidez, kontinente honetan landu diren herrialdeetatik zein gustatu zaien gehien aukeratzeko eta hautatua arrazoitzeko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Hori talde handian egingo dute, iritziak partekatzeko eta baita ahozotasuna lantzeko ere. Ondoren, ezagutu nahiko lukeen leku bati buruzko informazioa aurkitu beharko du ikasle bakoitzak. Horretarako, ondorengo galdera hauetaz osatutako gidalerroa eskainiko zaie:

- Non dago kokatuta?
- Ba al du kostarik?
- Zergatik ezagutu nahi duzu?

Ondoren, binaka jarriko dira eta aukeratutako herrialdea elkarri aurkeztuko diote.